



Pasaian, 45 urteko emakume bat erail du bere bikotekide ohiak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 01/12/2024

Atzo, emakumearen etxean sartu zen gizona eta tiroz hil zuen hura. Euskal Herrian aurten izan den zazpigarren hilketa matxista da.

Hilketa larunbatean gertatu zen, Pasai Antxoko Eskalantegi kaleko etxebizitza batean. Arratsaldeko 16:00etan emakumearen etxean sartu zen 53 urteko gizona eta tiroz hil zuen hura. Ihes egin zuen gero eta Villabonako Udaltzaingoan bere burua entregatu zuen. Geroago jakin denez, eraildako emakumeak salaketa jarria zuen tratatu txarreatik gizon horren kontra, izan ere, biktima eta hiltzailea bikotekide ohiak ziren. Erailketa honen aurrean, Pasaiako Mugimendu Feministak mobilizazioa burutu du gaur, Biteri plazan.

<https://eh.lahaine.org/pasaian-45-urteko-emakume-bat>